

Euskararen egoera euskal liburutegietan: Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala

Roberto Kerexeta Zulaika
Liburutegi Zerbitzuko teknikaria
Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila
r-kerexeta@ej-gv.es

Laburpena:

Komunikazio honetan euskal liburutegietan euskararen presentzia nolakoa den, modu xume batean aztertzen da; baina, batez ere, katalogazioko eta katalogoetako egoera azpimarratzen da. Halaber, Liburutegi Zerbitzuak, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko liburutegiei zuzenduta, abian dituen proiektu garrantzitsuenen egungo egoeraren eta aurrerantzean eman beharreko urratsen berri ematen da: euskaraz katalogatzeko arauak finkatzeko lan-taldea, katalogo kolektiboa eta autoritate eta gai-sarreraren datu-base elebiduna.

1.- Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala dela 25 urte pasa diren arren, euskararen presentzia liburutegi arloan kaskarra izan da, eta egun ere, oro har, hala dela aitortu behar da. Nahiz eta hainbat erakunde eta liburutegitan gai honi buruzko kezka eta ardura egon, ezer gutxi egin da, eta, kasu gehienetan, oztopoak non-nahi ikusi eta nagusitu dira (MARC formatuaren ezintasunak elebitasunerako, programa informatikoak erdaraz, euskarazko lan-tresnen gabezia...). Halaber, euskal erakundeen aldetik ez da eman euskararen normalizazioari dagokionez benetako erantzun koordinatu eta eraginkorrik. Alta, zorionez, badira, oztopoak oztopo, aurrera egin duten liburutegi gutxi batzuk (esate baterako, Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka edota HABEko liburutegia), non katalogoetako hizkuntza nagusia euskara den, bai katalogoetan bai eta gainerako arloetan ere.

Komunikazio honen xedea da liburutegien eremuan euskarak izan duen presentziaren ikuspegi orokor bat ematea, eta, batez ere Liburutegi Zerbitzuak koordinatzen duen Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko (ELSN hemendik aurrera) liburutegietako katalogoetan eta katalogazio prozesuan euskararen presentzia gehitzeko proiektuak eta asmoak ezagutaraztea. Liburutegi Zerbitzuaren helbururik behinena katalogo kolektiboan elebitasuna bermatzea da —hau da, bilaketak euskaraz eta gaztelaniaz egitea ahalbidetzea—; baina aurrerantzean gai-sarreratan eleaniztasuna bultzatzea ahaztu gabe. Helburu hori lortzeko ezinbestekoak diren bi proiektu jada abian daude: euskaraz katalogatzeko arauak finkatzeko lan-taldea, eta, autoritate edo sarrera nagusien eta gai-sarreraren datu-base elebiduna.

Bestalde, 2003ko neguan ELSNko liburutegien sare informatikoa on line jartzeko proiektua abian jarriko da, eta hiru urtetan ELSNko udal liburutegi gehienak proiektuan sartzea lortu nahi da. Egitasmo horren ezaugarriak nagusien artean —katalogazioko denbora eta baliabideak aurrezteko eta katalogazio bikoitza saihesteko helburuarekin— hauexek daude: katalogazio zentralizatua, bakarra, on line eta elebiduna egitea

Proiektu hau ELSNko liburutegi publikoei zuzendua badago ere, Sistema Nazionalean gainerako liburutegiak ere sar daitezke Kultura Sailarekin hitzarmena sinatuz gero (asmo honek lege¹ oinarriak ere baditu). Egun, Liburutegi Zerbitzuaren katalogo kolektiboan ELSNren barruan ez dauden hainbat liburutegiren katalogoak kontsulta daitezke, horretarako aurrez Kultura Sailarekin hitzarmen bat sinatu behar izan dute.

Ildo honetan, Kultura Sailaren nahia da euskal erakundeetako eta liburutegi arloko arduradun eta profesionalen arteko lankidetzak eta elkarlana bultzatzea.

¹ Uztailaren 3ko 7/1990 LEGEA, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa, 86. artikulua (EHAA, 1990-08-06, 157 zk.)

2.- Euskararen presentzia Euskal Herriko liburutegietan

Atal honetan euskarak liburutegien arloan izan duen eta gaur egun duen presentziaren berri eman nahi da, eta, horretarako hiru ataletan banatu da: euskara katalogoetan, euskarazko materiala eta euskararen “paisaia”. Orobat, atal bakoitzean etorkizunean gauzatu daitezkeen asmoen berri ere eman nahi izan dugu.

2.1.- Euskara katalogoetan

Lehenik, lerro hauen bidez, katalogoetan euskara —neurri batean edo bestean— erabiltzen duten liburutegi adierazgarrien aipamen labur bat egin nahi izan dugu. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren katalogo kolektibo elebiduna aurreragoko atalean jorratuko dugunez, haren aipamena hemendik kanpo utzi dugu. Hona hemen zerrenda:

a) Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka: giza zientzietan espezializatuta dago eta euskara da bere ondarearen muina. 1995ean hasi zen eta euskara hutsez egiten den lehen katalogoa da. Hortaz, euskarazko katalogazioa eta terminologia lantzeko ezinbesteko erreferentzia bihurtu da. Bibliotekako katalogazio hizkuntza euskara da; beraz, deskribapen bibliografikoa, autoritateak eta gai-sarrerak euskaraz jorratu dituzte.

b) HABEko liburutegia: euskara, hizkuntzalaritza, soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikaren gaitan biblioteka espezializatua da. Katalogazio hizkuntza euskara da, baina gai-sarrerak euskaraz gain ingelesez eta gaztelaniaz ere kontsulta daitezke.

c) Bizkaiko Foru Liburutegia: biblioteka orokorra da. Katalogazio hizkuntza gaztelania da, baina gai-sarrerak gaztelaniaz gainera euskaraz ere eskaintzen dituzte.

d) Koldo Mitxelena Kulturunea: katalogazio hizkuntza dokumentuaren hizkuntzaren arabera da, hots, euskarazko dokumentuen deskribapen bibliografikoa euskaraz egiten dute; euskaraz ez dauden dokumentuak gaztelaniaz deskribatzen dituzte.

e) Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuko lege-gordailua: 2000tik honantz katalogazio-hizkuntza euskara da.

Bestalde, goian aipatutakoez gain, badira beste liburutegi eta dokumentazio-zentro batzuk ere katalogazioaren alderdiren bat euskaraz jorratu dutenak: SHEE/IVEF, Xenpelar Dokumentazio-zentroa, Iparraldeko IKAS, hainbat udal liburutegi, eta abar.

Bigarrenik, aparteko garrantzia du euskarak oro har pairatzen zuen bazterketa ikusirik, 1997an Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiaren (JABM hemendik aurrera) sorrerak. Euskal liburuzain eta dokumentalista talde batek mintegia sortu zuen helburu zehatz batekin: euskararen erabilera normalizatzea

Euskal Herriko biblioteka eta dokumentazio-zentroetan, maila guztietan baina bereziki katalogazioari dagokionez. Honela, orain arte egindako lana batez ere bi ardatzetan banatu da: batetik, lan teorikoa egin dute, bereziki Euskal Biblioteka Nazionalaren premia aldarrikatuz; eta, bestetik, arlo praktikoa landu dute katalogatzeko beharrezko terminologiaren arloan. Gainera, Mintegiak euskara hutsezko liburuzaintzako posta-zerrenda bat ere kudeatzen du.

Azkenik, euskal eremuan hedatuenak dauden liburutegiak kudeatzeko programa-informatikoei dagokienez (Absys, Amicus, Innopac...), aipatu behar da egun ia guztiek eskaintzen dituztela WEB-OPACak eta OPACak kontsultatzeko interfaze eleaniztunak, euskarazkoak barne; baita euskarazko programa informatikoak ere. Hala ere, oraindik merkatuan ez dago elebitasuna erabat bermatuko duen programa-informatikorik.

Bestalde, zalantzarik gabe, azken urteetan katalogoetan elebitasuna bermatzeko eman den aurrerabiderik inportanteenetakoa eta eraginkorrenetakoa MARC21 formatuaren agerpena izan da. Horrek ahalbideratu du autoritateen katalogoetan T7XX etiketak aurreikustea gainerako hizkuntzetako baliokidetza linguistikoak jasotzeko. ELSNko liburutegi gehienetan IBERMARC formatua eta Absys programa informatikoa (Donostia eta Bilboko udal liburutegietan izan ezik) erabiltzen dira, eta nahiz eta 2000 urtean argitaratutako *Formato IBERMARC para registros de autoridad* lanean T7XX etiketa horiek agertu, Absys programaren bertsioetan ez ziren agertzen. Behingoz, 2003an instalatzen hasi diren 6.0 bertsioan autoritateen katalogo bibliografikoan etiketa horietaz baliatzeko aukera izango dugu. Beraz, hemendik aurrera posible izango da dokumentua katalogatzen den unetik autoritate eta gai-sarrera elebidunak edota eleaniztunak sortzea.

Laburbilduz, interesgarria iruditu zaigu euskarak katalogoetan izandako presentziaren errepaso hau egitea; orain arte egindako ahalegin guztiak, nahiz eta maiz hutsalak izan, aintzat hartu eta kontuan izan behar direlako.

2.2.- Euskaraz argitaratutako materiala:

Bibliotekonomia arloan euskaraz ezer gutxi dago argitaratuta, eta are gutxiago katalogazioari buruz. Alde batetik, lerro hauetan argitalpen adierazgarrienen aipamen kronologiko laburra egingo dugu.

- Liburutegi arloan euskarazko lehen liburua *Liburutegi Publikoetarako orientabideak* dugu, IFLAk argitaratu eta 1988an Xabier Mendigurenek itzulua.
- Gai-sarreraren arloan aipagarria da 1993an Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako lana, *Liburutegi publikoetako gaien izenburuen zerrenda*.
- JABMk 2001ean argitaratutako *Katalogatzeko oinarrizko terminologia* eskuliburua. Oinarri-oinarrizko lana izan arren, euskaraz katalogatzen duten liburutegientzako ezinbesteko erreferentzia bihurtu da. Liburua euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatzia dago eta lau ataletan banatzen da: terminologia, ohar erabilienak, deskribapen fisikoa eta

laburdurak. Lan hau monografiak katalogatzeko erabilgarria da, batik bat.

- Katalogazioaren arloan, Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuaren lanak ere aipagarriak dira: euskaraz katalogatzeko arauak, eta, autoritate eta gai-sarreraren datu-base elebiduna. Aurreragoko ataletan sakonago aztertuko ditugu.

Beste alde batetik, Liburutegi Zerbitzuaren asmoa da, bibliotekonomia eta liburutegi arloan euskarazko dokumentuen eskasia ikusirik, argitalpen bilduma bat abian jartzea. Bertan argitaratuko diren lanak euskaraz, gaztelaniaz edota elebitan izango lirateke, baina betiere euskarak lehentasuna izango luke. Bilduma hau hainbat sailetan banatuko litzateke, hala nola: araudia, estatistikak, katalogazioa... Lan ildo honi jarraituz, Liburutegi Zerbitzuak 2003an ondoko lana argitaratuko du: *Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalako liburutegi publikoak: estatistika txostena, 2001* (argitalpen elebiduna). Eta 2004an ondoko lanaren euskarazko itzulpena argitaratzeko asmoa du: *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas* (IFLA, 2001).

Hala, Liburutegi Zerbitzuak urtero dokumenturen bat euskaraz argitaratzeko konpromisoa hartuko luke. Era berean, interesgarria iruditzen zaigu batzorde bat sortzea, euskaraz argitaratzeko orduan zein dokumentu hobetsi eta lehenetsi beharko liratekeen erabakitzeko. Batzorde hori euskararen inguruan arreta eta ardura duten eragileen (liburutegi, elkarte...) eta Kultura Saileko teknikarien artean osatuko litzateke.

2.3.- Euskararen “paisaia”

Azkenik, Liburutegi Zerbitzuak liburutegiko euskararen “paisaia” deitu dugun arloa jorratzeko asmoa agertu nahi du, hots, liburutegietan euskaraz edota elebitan gure begiekin ikusten ditugun errotulazio, ohar, kartel, txartel eta abarren hizkuntz kalitatea zaintzeko xedea du.

Erabiltzaile euskaldun batek ELSNko liburutegi publiko bat bisitatzen duenean, euskararen presentzia bisualari dagokionez eskuarki lehen inpresioa positiboa izango du. Aitzitik, liburutegi bat baino gehiago bisitatuz gero, laster ohartuko da euskarazko hizkera eta terminologia kasu askotan desberdin erabili izan dela: termino edo kontzeptu bera izendatzeko modu bat baino gehiago erabili izan dira. Hau guztiau, fondo eta mota bereko liburutegietan (udal liburutegietan) gertatzen bada, pentsa daiteke gainerako liburutegietako (espezializatu, dokumentazio-zentro,...) egoera ez dela izango askoz hobea, eta, anabatatik urruti ez garela egongo.

Beraz, nahiz eta alor honetan gabeziak eta hizkeraren normalizazio falta katalogatzerako orduan bezain premiazkoa ez izan, ahuleziak egon badaude eta garrantzia dute: liburutegietan euskararen normalizazio ezaren eta premien erakusle eta adierazgarri dira.

Laburbilduz, Liburutegi Zerbitzuaren xedea da liburutegietan euskarak duen presentzia aztertu eta guztientzako beharrezkoa den terminologia komuna

lantzea —ahal den neurrian, tokian tokiko euskalkiak errespetatuz—. Honela, HAEE-IVAPekin lankidetzan, komenigarria litzateke liburutegietako euskararen “paisaia” bateratzeko beharrezkoa den oinarrizko terminologia lantzeko egitasmoa abian jartzea.

3.- Euskara katalogazioan

Katalogoek liburutegietan duten garrantzia dela-eta, euskararen presentzia katalogoetan bermatzeko eta bultzatzeko ezinbesteko diren bi proiektu jarri ditu abian Liburutegi Zerbitzuak azken urteotan: batetik, euskaraz katalogatzeko arauak finkatzeko lan-taldea; eta, bestetik, autoritate eta gai-sarreraren datu-base elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz).

Alabaina, katalogo elebidunak edo euskara hutsezkoak egiteko arlo bi horiek lantzea ezinbestekoa den arren, beharrezkoak dira, baita ere, beste hainbat lan-tresna arlo tekniko zein informatikoan: eredu katalogafikoa hizkuntzari dagokionez zehaztea, MARC formatuaren euskarazko bertsioak (MARC21), ISBD arauen itzulpenak, autoritate bibliografikoak eta gai-sarrerak sortzeko irizpideak, deskribapen bibliografikorako terminologia (aldizkako argitalpenak, musika inprimatua, kartografia...), euskaraz egindako erreferentziazko katalogoak, Euskal Herriko bibliografia nazionala...

Goian aipaturiko horietatik zenbait urrats ematen ez diren bitartean, ezingo dugu esan euskararen egoera katalogazioan erabat normalizatuta dagoenik.

3.1.- Katalogazio hizkuntza

Jakina da liburutegien katalogoetako katalogazio hizkuntza zein izango den erabakitzen dugunean deskribapen bibliografikoaren hainbat eremu (oharrak, deskribapen fisikoa, zenbait interpolazio) eta gai-sarrerak zein hizkuntzatan joango diren erabakitzen ari garela. Beraz, erabaki teknikoa izateaz gain, erakundearen hizkuntz politikaren —eta noski, borondate politikoaren— erakusgarri ere bada. Gaur egun, ezagunak diren salbuespenak kenduta, oro har, euskal liburutegietako katalogazio hizkuntza nagusia erdara da.

Egundaino, ez da egon Liburutegi Zerbitzuaren aldetik inolako politikarik katalogazio hizkuntzari dagokionez. Hori dela eta, ELSNko liburutegiei askatasuna eman zaie katalogatzeko zein hizkuntza erabili erabakitzeko orduan; ondorioz, euskaraz edota gaztelaniaz katalogatzeko aukera izan dute. Baina praktikan oso zaila edota ia ezinezkoa izan zaie liburuzainei euskararen aldeko hautua egitea, horretarako beharrezko lan-tresnak falta izan zaizkielako: euskarazko katalogazio arauak, terminologia, euskarazko autoritate eta gai-sarrerak... Hori horrela izanik, oso liburutegi gutxi —borondate onarekin eta bitarteko gutxirekin— ausartu dira euskaraz katalogatzera. Alta, esan behar da azken urteotan euskalduntzearen onerako gauzak zerbait aldatu direla; batez ere, JABMk 2001ean *katalogatzeko oinarrizko terminologia* eskuliburua argitaratu zuenetik. Baina, oraindik, gabeziak handiak dira, bereziki euskarazko

autoritate eta gai-sarrerei eta deskribapen bibliografikorako terminologiari dagokienez (monografiak izan ezik).

Horregatik, ELSNko liburutegien sarea on line jartzeko proiektu berria dela-eta, uste dugu beharrezkoa dela politika katalogafikoa zehaztea, katalogazio hizkuntza zein izango den erabakitzeko. Ondoren, dauden aukerak ikusiko ditugu, aukera horiek nonbait bideratzen diren eta zein abantaila/desabaintaila duten aztertu, eta, gure ustez, elebitasuna bermatzeko egokiena zein den erabaki ahal izateko:

1. Katalogazio hizkuntza euskara izatea: badira Euskal Herrian haxe hautatu duten hainbat liburutegi, besteak beste, Azkue Biblioteka, HABEko liburutegia, Eusko Jaurlaritzaren lege-gordailua 2000tik aurrera, Iparraldeko IKAS euskal pedagogia Zerbitzua... Hemendik kanpo ere, aipagarria da Kataluniako kasua, non katalan hutsez katalogatzen duten. Liburutegi Zerbitzuaren ustez, kontuan izanik EAEn euskara eta gaztelania ofizialak direla, aukera hau ELSNko liburutegientzako ez litzateke egokiena izango.

2. Katalogazio elebiduna: elebitasuna zentzu hertsian ulertuta, hots, erregistro bibliografiko berean deskribapen fisikoa eta oharrak bi hizkuntzatan ematea. MARC formatuaren arabera posible litzateke, baina aukera hau ere bazterten dugu. Batetik, nazioartean ez dugulako aurkitu horren eredurik; eta, bestetik, garestiagoa eta katalogatzeko unean denbora gehiago beharko litzatekeelako.

3. Dokumentu bera bi aldiz katalogatzea, hots, katalogoak bikoiztea: teknikoki posible da, link baten bidez, dokumentu beraren euskarazko eta gaztelaniazko erregistroak lotzea. Baina aukera hau oso garestia litzateke, eta zenbaitetan absurdoa ere bai. Nazioartean ez dugu aurkitu praktika horren eredurik.

4. Dokumentuaren hizkuntzaren arabera katalogazioa: teknikoki eta informatikoki ez dago arazorik, eta nazioartean bada horren eredurik. Esaterako, Kanadako Biblioteka Nazionalean dokumentuaren hizkuntzaren arabera katalogazioa egiten dute: dokumentua frantsesez badago frantsesez, ingelesez badago ingelesez, frantsesez eta ingelesez badago bi hizkuntzetan, eta frantsesa ez den beste hizkuntza baten badago ingelesez. Halaber, gertuagora etorri gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Koldo Mitxelena Kulturunean ere fondoak dokumentuaren hizkuntzaren arabera katalogatzen dituzte.

Liburutegi Zerbitzuak azken aukera horren alde egitea erabaki du. Beraz, Liburutegi Zerbitzuaren egitasmoa dokumentuaren hizkuntzaren arabera katalogatzea da, bai ELSNko sarea on line proiektu berrian sartuko diren liburutegientzako bai eta lege-gordailuarentzako ere. Betiere kontuan izanik autoritateen sarrerak (norbanako egileak, egile korporatiboak, kongresuak, izenburu hautatuak) eta gai-sarrerak bi hizkuntzatan joan beharko direla, hala dagokionean.

Zehazkiago, Liburutegi Zerbitzuaren proposamena katalogazio hizkuntzari buruz hauxe litzateke:

- Euskarazko dokumentuak euskaraz katalogatzea.
- Gaztelaniazko dokumentuak gaztelaniaz katalogatzea.
- Euskaraz eta gaztelaniaz dauden dokumentuen kasuan, bi erregistro egingo lirateke, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Adibidez, Absys programaren bertsio berrian aukera hau aurreikusten da, hau da, dokumentu berdina hizkuntza bat baino gehiagotan katalogatzea eta beraien artean lotzea.
- Euskara ez den beste hizkuntza baten dauden dokumentuak, gaztelaniaz katalogatzea.

Dokumentuaren hizkuntzaren arabera katalogatzearen aldeko hautua egitearen zio nagusiak hauek lirateke: nazioartean nahiz euskal eremuan erreferentziak egotea, katalogoetan euskarazko terminologia lantzeko eta praktikan jartzeko aukera eskaintzea, elebitasuna bermatzea... Eta gainera, inoiz atzerabegirako katalogazioa egitea pentsatuz gero, ez luke hainbesteko lanik suposatuko, euskarazko dokumentuen kopurua gaztelaniazkoaren aldean urria izango litzatekeelako eta zuzendu beharreko erregistroak gutxiago izango liratekeelako.

Liburutegi Zerbitzuaren asmoa da politika katalogafikoari dagokion planteamendu hau, jardunaldi hauetaz baliatuz, liburuzainei aurkeztea, eta, hausnartu ondoren, behin betiko erabakia hartzea.

3.2.- Euskaraz katalogatzeko arauak

Atal honetan Kultura Sailak abian jarritako bi proiektu ezagutarazi eta egun zertan diren azaldu nahi dugu: *Anglo-American Cataloguing Rules* (AACR) eta *Reglas de Catalogación* (REC) arauen itzulpenak, hain zuzen ere.

Lehen proiektuari dagokionean, 2001ean Liburutegi Zerbitzuak Anglo-American Cataloguing Rules (second edition 1998 revision) arauak itzultzea eta egokitzea erabaki zuen, eta, HAEE/IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialari liburua itzultzeko eskatu zitzaion. Halaber, Liburutegi Zerbitzuak lagun bat kontratatu zuen euskarazko adibideak aurkitu eta egokitzeko. Lehen asmoa arauak osorik itzultzea bazen ere, soilik ondorengo kapituluak itzuli ziren: deskribapenerako arau orokorrak (1.- General rules for description); liburuak, liburuxkak eta orri inprimatuak (2.- Books, pamphlets, and printed sheets); sarrera-puntuen aukeraketa (21.- Choice of access points); izenen sarrerak (22.- Headings for persons); izen geografikoen sarrerak (23.- Geographic names); erakundeen sarrerak (24.- Headings for corporate bodies); glosategia (glossary) eta laburdurak (abbreviations). Beraz, batez ere monografiak katalogatzeko beharrezko diren arauak itzuli ziren; baina ez guztiak. Bestalde, glosategiaren kasuan angloamerikar arauetakoaz gainera, Espainiako arauetako glosategia eta hainbat hiztegi teknikoetakoak ere hartu ziren. Laburdurak, aldiz, Espainiako arauetatik itzuli ziren.

Itzulitako lana Liburutegi Zerbitzuaren web orrian kontsultagai jarri zen arren, egindako lanak ez zuen zabalkunde handirik izan liburuzainen artean.

Ondoren, lankidetzan oinarritutako lan-dinamika berri bati ekin zitzaion. Horrela, 2002ko maiatzean bilera bat egin zen EAEko liburutegi arloko hainbat profesional eta arduradunekin: liburutegi esanguratsuenetako ordezkariak (foru aldundietakoak, unibertsitateetakoak, espezializatuak, udal liburutegiak, Eusko Jaurlaritzakoak...), JABMko kideak eta HAEE-IVAPEko teknikariak izan ziren. Bilera horren helburu nagusia euskaraz katalogatzeko arauak finkatzea izan zen: erakunde bakoitzaren konpromiso maila eta lan-metodologia zehaztu, eta, egokitu eta itzuli beharreko arauak zeintzuk izango ziren erabaki.

Horrenbestez, lehendabizi, Espainiako Ministerioko arauak itzultzea erabaki zen —partaide batzuk kontra azaldu ziren arren—, eta, ondoren, hasitako lana bukatzea, AACR arauen itzulpena alegia. Espainiako arauari (*Reglas de catalogación*. Ministerio de Educación y Cultura, Madrid, edición nuevamente revisada, 2000) lehentasuna emateko bi arrazoi nagusi aipatu ziren: euskal liburutegietan erabilienak izatea eta gaztelaniazko katalogoekiko homogeneotasuna gordetzea. Lan hori bideratzeko, euskaraz katalogatzeko arauak finkatzeko, hainbat liburutegitako profesionalen osatutako lan-talde bat sortu zen: Euskaltzaindiako Azkue Biblioteka, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia, Donostiako Udal Liburutegia, Bilboko Udal Liburutegia, Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzua eta HAEE/IVAPEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala. Horretaz gain, katalogo kolektiboa lantzeko lan-talde bat ere eratu zen. Aitzitik, autoritateak eta gai-sarrerak euskaratzeko premia ere nabarmendu arren, ez zen lan-talderik sortu.

Aurrerago, 2002ko udazkenean, lan-kronograma eta -metodologia zehaztu ondoren, Liburutegi Zerbitzuaren gidaritzapean lan-taldea abian jarri zen. Orain arte, lan-taldeak itzulitako eta gainbegiratutako kapituluak hauek dira: deskribapen bibliografikoari buruzko arau orokorrak, argitalpen monografikoen deskribapenari buruzko arau orokorrak, sarrerak aukeratzeari buruzko arauak eta sarreren formari dagozkionak. Liburutegi Zerbitzuaren asmoa 2004 urterako arauak osorik itzultzea da. Gainera, azpimarratu behar da ez dela arauen itzulpen literal hutsa egin eta euskal kulturaren eremura egokitzeko ahalegina egin dela: euskarazko dokumentuen kasuistika kontuan hartu da (pareko izenburuak, testu kontrajarriak, euskal izenen grafia...), adibideak ere egokitu dira eta Espainiako arauetan agertu ez eta euskarazkoetan jaso beharrezkotzat jo diren hainbat arau osagarri gehitu dira.

Honela, Liburutegi Zerbitzuaren asmoa eta nahia da arauok erabili ahal izatea euskara hutsez edota elebitan katalogatu nahi duten edozein liburutegitan; baina, batez ere, ELSNko sarearen egitasmo berrian. Sare horretan katalogatzeko lan-talde edota zentro-katalogatzaile bat (zenbait liburutegik osatua) sortuko litzateke, eta berau aukera paregabea izango litzateke arauetan ezarritako erabaki eta irizpideak praktikan jartzeko eta baita irizten diren aldaketak egiteko ere. Bestalde, kontuan izan behar da Espainiako arauetaz gain, sor daitezkeen zalantzak argitzeko AACR arauak ere kontsultatzeko moduan izango genituzkeela, eta azken hauek osoagoak direla.

Guzti horren azken helburua nazioarteko arauetan oinarritutako euskal arauak sortzea litzateke. Ezin da ahaztu, ordea, azken urteetan nazioartean katalogazio arauetan aldaketa ugari ematen ari direla (informazioaren gizartean etengabe gertatzen ari diren teknologi berrien aurrerapenekin), eta aldaketa guzti horiek euskarazko arauetan jasotzea egun ezinezkoa litzatekeela. Alabaina, oso komenigarria litzateke nazioartera sarritan begiratu eta aldaketa hauen berri lehenbailehen izatea, euskal kultur eremurako garrantzitsuenak diren arauak ahalik eta azkarren jaso eta geureganatzeko.

3.3.- Autoritate eta gai-sarreraren datu-base elebiduna

Euskaraz katalogatzeko nahia azaldu duten euskal liburutegietan euskarazko autoritate eta gai-sarreraren beharra eta premia konstante bat izan da. Honela, hasieratik gaien zerrendak euskaratzeko saio ugari egin dira, honatx horietako batzuk:

- Batetik, 90ko hamarkadaren hasieran gaien izenburuen zerrendak euskaratzeko bi saio nagusi egin ziren. Lehena, Bizkaiko Foru Liburutegiak UZEIri eskatutakoa eta liburutegi publikoentzako zuzendua: *Liburutegi publikoetako gaien izenburuen zerrenda*, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila, 1993. Funtsean Espainiako Kultura Ministerioak 1986an argitaratutako *Lista de encabezamientos de materia para las bibliotecas públicas* (LEM) lanaren itzulpena da. Bigarrena, Eusko Jaurlaritzak Labayru Ikastegiari eskatutako zerrenda izan zen. Tamalez, bi saioek gainerako liburutegietan ez zuten arrakasta handirik izan eta bide hau baztertu egin zen, HAEE/IVAPEk egindako txosten baten arabera zerrenda bi hauek gutxieneko maila ez zutela betetzen-eta.
- Bestetik, 90ko hamarkadan ere, Liburutegi Zerbitzuak hainbat bilera egin zituen ELSNko udal liburutegietako liburuzainekin gai-sarreraren zein zerrenda adostu erabakitzeko; baina egindako ahalegin hauek ere ez zuten arrakasta handirik izan.
- Azkenik, 1999an Liburutegi Zerbitzuan berriro heldu zitzaion gaiari, eta autoritateen eta gai-sarreraren datu-base elebiduna formatu informatikoan egiteko proiektu aitzindaria lantzeari ekin zitzaion. Lan erraldoi horren helburuen artean, besteak beste, hauexek zeuden: batetik, ELSNko liburutegietan zabaltzea eta erabiltzea, behingoz, autoritateen kalitate kontrola ezartzeko; bestetik, gaztelania hutsezko katalogoak katalogo kolektiboan euskaraz kontsultatu ahal izateko lan-tresna bilakatzea; eta, azkenik, Euskal Herriko autoritate eta gai-sarrera elebidunak sortzea.

Honela, Liburutegi Zerbitzuak datu-base elebidunaren egitasmoa abian jarri zuen, eta lana HAEE/IVAPEko IZOko itzultzaileekin lankidetzan egin zen, zerrenda ofiziala bihurtzeko xedearekin. Bi urteko iraupena izan zuen eta

2001eko udaberrian Liburutegi Zerbitzuko web orriaren katalogo kolektiboan² kontsulta zitekeen.

Datu-base hau zerrenda irekia da eta, nagusiki Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen duen lege-gordailuaren bidez elikatzen da. 2003ko uztailean guztira 76.223 erregistro inguru biltzen zituen, honela sailkatuta: norbanako egileen izenak 41.521, egile korporatiboen izenak 10.098, kongresuen izenak 1.661, izenburu hautatuak 207, gai-sarrerak 18.563 eta leku-izenak 4.173. Autoritate eta gai-sarreraren datu-base hau sortzeko, besteak beste, ondoko iturri hauek erabili ziren: *Lista de encabezamientos de materia para bibliotecas públicas (LEM)*, Autoridades de la Biblioteca Nacional, *Encabezamientos de materia de la biblioteca universitaria* (Universidad de Sevilla), EAEko lege-gordailua, *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, *Harluxet*...

Lerro hauen bidez, datu-basearen sorrerako prozesuaren azalpen laburra egingo dugu. Datu-basea egiteko aukeratutako Absys programa informatikoak eta IBERMARC formatuak, hasiera batean, autoritateak sortzeko ez zuten aukera elebiduna eskaintzen. Hortaz, Absys programaren autoritateen katalogo bibliografikotik kanpo —baina lege-gordailuaren katalogoan integratuta—, berariaz prestatutako datu-basea sortu zen (Baratz enpresak egina) MARC21 formatuan oinarrituta. Formatu horren ezaugarririk garrantzitsuenetakoa da autoritateen erregistroak sortzeko T7XX etiketen erabilera. Etiketa horiek beste hizkuntzetako baliokidetza linguistikoak jasotzeko funtzioa dute; beraz, bide horretatik autoritate elebidunak edota eleaniztunak sortzeko aukera izango da. Erregistro bakarrean autoritate eta gai-sarreraren euskarazko eta/edo gaztelaniazko formak jasotzen dira: forma onartuarentzako T7XX etiketak, ez onartuentzako T8XX etiketak eta erlazionatuentzako T9XX etiketak erabili dira (ikus 1. eranskina). Aldiz, Kultura Sailaren web orriko autoritateen datu-basea kontsultatuz gero, jatorrizko erregistro bakar hori bitan banatzen da, bat euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, kontsulta egiteko aukeratu den interfazearen hizkuntzaren arabera (ikus 2. eranskina).

Esan behar da benetan lan eskerga eta baliagarria egin dela; baina ezin dugu ahaztu autoritateen kontrola lan tekniko zaila, neketsua eta bukaezina dela. Liburutegi Zerbitzuan ohartu gara datu-baseak erabilgarritasun eta eraginkortasunaren ikuspuntutik mugak eta alde ilunak dituela, teknikoak zein informatikoak. Horrela, Zerbitzuaren lan ildoak horiek konpontze aldera zuzendu dira. Honatx horietako muga batzuk:

- Autoritateak jasotzeko erabilitako iturriak ez dirudite egokienak eta hutsuneak nabarmenak dira: euskal klasikoak, Nafarroa eta Iparraldeko norbanako egileak eta egile korporatiboak...
- Programa informatikoaren berariazko ezintasunak: nabigatzeko eta erregistroak errekuperatzeko, kontsultarako interfazearen diseinua, liburutegiek datu-basea txertatzeko oztopoak,...
- Hartutako zenbait erabaki tekniko errebisatu beharko lirateke: izen-ofizialen erabilera, forma alternatiboak, azpisarrerak...

² http://www1.euskadi.net/libro_bibliotecas/libroybibliotecas/03default.htm

- Orain arte ez du izan loturarik katalogo kolektiboko gainerako liburutegietako autoritateen katalogoekin.

Honela, goian aipaturiko arrazoiak kontuan izanik, hobekuntza informatiko zein teknikoak beharrezkoak dira kalitatezko euskal autoritate eta gai-sarrerak izan nahi baditugu.

Batetik, ezinbestekoa da autoritate eta gai-sarreraren datu-basea kudeatzeko programa informatikoa hobetzea: katalogo bibliografikotik banandua behar du izan baina bertan integratua, eta internet bidez kontsultatzeko erraza. Oraingoz, bai Euskal Herri bai Estatu mailan oso gutxi dira interneten kontsulta daitezkeen autoritate eta gai-sarreraren katalogoak (katalogo bibliografikotik bereizirik). Aipagarriak dira Catálogo de autoridades del CSIC (gaztelaniaz), Autoridades de la Biblioteca Nacional (gaztelaniaz) eta Llista d'Encapçalaments de Matèria en Català-LEMAC (katalanez). Baina, oraingoz ez dago eredu elebidun edo eleaniztunik, nahiz eta CSICen kasuan frantsesa eta ingelesa aurki gehitzeko asmoa azaldu. Bestalde, ezin da ahaztu oso liburutegi gutxi betetzen dituztela osorik autoritateen katalogo bibliografikoko erregistroetako MARC etiketa guztiak ere; batez ere iturriei eta oharrei buruzko datuak faltatzen dira.

Halaber, bai nazioartean eta baita euskal liburutegietan ere gai-sarreraren hainbat zerrenda erabiltzen dira, besteak beste: LCSH (Library of Congress Subject Headings), LAVAL, RAMEAU edota Espainiako Encabezamientos de Materia de la Biblioteca Nacional. Honela, gure ustez egokiena pixkanaka zerrendok bateratzen joatea litzateke eta mundu mailan hedatuena erabiltzea, LCSH, alegia. Horretarako, liburuzain eta itzultzaileen talde bat etengabe elkarlanean aritu beharko litzateke. Katalanek ere gaien zerrenda elikatzeke iturri horixe erabiltzen dute.

Bestetik, Kultura Sailaren lehentasuna Euskal Herriko autoritate eta gai-sarrera elebidunak (euskaraz eta gaztelaniaz) edota eleaniztunak (frantsesa ere) jasotzen dituen autoritateen datu-basea sortzea da. Lan hori gauzatzeko nazioartean erabiltzen den iturriak hedatuena lege-gordailua da. Baina, Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen duen lege-gordailuaren kasuan, helburu hori gauzatzeko hainbat oztopo daude:

- Kultura Sailak kudeatzen duen lege-gordailuan EAEn 1993 urtetik aurrera argitaratzen diren dokumentuak jasotzen dira. Hortaz, aurreko ondare bibliografikoa jasotzea falta da.
- Bai Nafarroan (Elkar argitaletxea, Txalaparta, Pamiela...) eta bai Iparraldean (Gatuzain...) euskarazko dokumentuak argitaratzen dira, eta hauek ez dira EAEko lege-gordailuan jasotzen.
- Euskal eremutik at ere, hainbat euskal argitaletzek dokumentuak inprimatzen dituzte eta hauek ere ez dira jasotzen.

Arazo honi aurre egiteko irtenbide posibleen artean, besteak beste, hauek egongo lirateke: batetik, euskal fondo bibliografikoak argitaratzen diren lurraldeetako erakundeekin lankidetzan bultzatzea dokumentu horiek eskuratzeko; eta, bestetik, erosketa politika bultzatzea.

Beraz, Euskal Herriko autoritateen katalogo elebiduna kalitatekoa izateko eta euskarazko bibliografia nazionala egiteko plangintza eta koordinazio-lan handia egin behar da. Horretarako, lankidetzak politika bultzatzeko eta autoritateen katalogoak elkartrukatzeko, ezinbestekoa da lantalde bat sortzea euskal kultur eremuko liburutegi eta erakunde garrantzitsuenekin (esate baterako, Azkue Biblioteka, Sancho el Sabio, foru aldundiak, unibertsitateak, Nafarroako Gobernua, Eusko Ikaskuntza...). Ildo honetan lehen urratsak eman ditugu; horrela Kultura Sailaren autoritateen datu-baseko eta Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiko erregistroak alderatu ditugu (korporazio eta norbanako egileen izenak). Honela, liburutegi garrantzitsuenetako autoritateak elkartrukatzen diren heinean, posible izango da argitaratzea bibliotekonomia arloan hain garrantzitsuak diren zerrendak: euskarazko autore klasikoak, izenburu hautatuak, euskal bibliografia nazionala, eta abar. Bestalde, euskal autoritateen datu-base elebidun hau oso baliagarria litzateke beste arlo batzuetako profesionalentzako ere, hala nola: kazetari, irakasle, itzultzaile...

4. Katalogo kolektibo elebiduna

Kultura Saileko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak (egun, soilik Liburutegi Zerbitzua) 2001eko udaberrian katalogo kolektibo elebiduna —elebitasuna ulertu behar da katalogoa kontsultatzeko unean erabiltzaileak nahi duen hizkuntza erabakitzeko duen aukera gisa— aurkeztu zuen eta interneten ikusgai jarri. Bertan, Absys programa informatikoa erabiltzen duten ELSN barneko nahiz kanpoko liburutegien katalogoak biltzen dira. Hauek egun ehundik gora dira, besteak beste: 92 udal liburutegi, lege-gordailua, autoritateen katalogoa, Eusko Jaurlaritzako hainbat liburutegi, Eresbil, Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioa, Lazkaoko Beneditarak, Loiolako Santutegia, eta abar. Katalogo kolektiboa eguneratzeko urtean zehar hiru karga egiten dira.

Alabaina, kalitateko katalogo kolektiboa izatea eragozten duten hainbat hutsune ditu, eta horiek erregistroak homogeneoak izatea zailtzen dute. Liburutegi Zerbitzuan azken aldian ematen ari diren urratsak eragozpen horiek zuzentzera bideratuta daude. Hona hemen horietako hutsune batzuk:

- Parte hartzen duten liburutegietako katalogazio eta autoritateen kontrolerako irizpideak ez daude normalizatuta.
- Bai katalogazio eta bai hizkuntza aldetik ere irizpide desberdinen arabera katalogatuta daude (katalogazio hizkuntza nagusia gaztelania da ia liburutegi gehienetan).
- Oraingoan Absys programa informatikoa duten liburutegietako katalogoak biltzen ditu.
- Oraingoan katalogo kolektiboa kargen bidez eguneratzen da.

Hala eta guztiz ere, zailtasun eta arazoei aurre egingo zitzaiela-eta, katalogo kolektiboarekin aurrera jarraitu zen euskararen normalizazioan ezinbesteko urratsa zela-eta. Ildo honetan, bi urte hauetan egindako lana arestian aipaturiko gabezia horiek osatzera bideratu da. Hala ere, badu alde

positiborik: nobedaderik nagusia da erabiltzaileei katalogoa internet bidez euskaraz nahiz gaztelaniaz kontsulta egiteko aukera eskaintzen zaiela.

Esan behar da MARC formatua hasiera batean ez zegoela prestatuta katalogazio elebidun edota eleaniztunetarako. Baina hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten herrialde batzuetan (adibidez, Belgikan eta Kanadan) MARC formatua euren premietara egokitu zuten. Bereziki azken herrialde honetan, Kanadako Liburutegi Nazionalean, elebitasunari emandako irtenbidea aztertu zen (MARC21 formatuan oinarritua) eta euskal egoerarako irtenbide egokia zela pentsatu zen. Modu laburrean, Kanadako eredia hauxe litzateke: dokumentu bat katalogatzerakoan gai-sarrerak (T6XX) bi hizkuntza ofizialetan (ingelesez eta frantsesez) ematen dira kasu guztietan, eta, gainerako sarrerak bai nagusiak (T1XX) eta bai bigarren sarrerak (T7XX) ere MARC formatuko T9XX etiketetan bikoizten dira.

Haatik, irtenbide hori dagoen horretan ezin izan zen ezarri Kultura Sailaren katalogo kolektiboan, 2001ean Absys programa informatikoak eta IBERMARC formatuak aukera elebiduna eskaintzen ez zutelako. Hortaz, egoerari irtenbidea bilatzeko emandako urratsak laburki hauek izan ziren:

- Lehenik, katalogoetako erregistroak fusionatu egiten dira, eta horretarako erregistro bikoitzak detektatzeko programa informatiko bat erabiltzen da. Ondorioz, katalogoan dokumentu baten erregistro bakarra geratzen da, eta gainerako liburutegien kokapenak eransten zaizkie.
- Azkenik, jatorriz elebakarrak diren katalogoak elebidun bihurtzeko etiketak bikoiztu egiten dira; horretarako, berariaz prestatutako programa informatiko baten bidez. Liburutegi Zerbitzuak propio prestatutako autoritateen datu-base elebiduneko erregistroekin alderatu eta etiketak bikoizten dira euskaraz nahiz gaztelaniaz. Horrela, katalogo kolektiboa euskaraz nahiz gaztelaniaz kontsultatu ahal izango da. Alabaina, sarritan jatorrizko katalogoetan agertzen diren autoritate eta gai-sarrerak ez daude sartuta Kultura Sailaren autoritateen datu-base elebidunean; hortaz, ezinezkoa da bi hizkuntzatan ematea. Kasu horretan sarrera horiek jatorrizko katalogoan zeuden hizkuntzan ematen dira, eta, T653 etiketan ere jasotzen dira; ondoren datu-base elebidunean sartu eta dagokion hizkuntzan ordaina emateko. Bien bitartean, katalogo kolektiboan hizkuntza bakarrean —ia gehienetan gaztelaniaz— azalduko dira, baina balidatu gabe.

Hasiera batean, Liburutegi Zerbitzuko Katalogo kolektiboan Kanadako eredia jarraitu zen: batetik, gai-sarrerak T650 etiketetan bikoiztu ziren; eta, bestetik, sarrera nagusiak (T1XX) eta bigarren sarrerak (T7XX) T9XX etiketetan (MARC formatuaren arabera tokian tokiko erabilerako prestatuak). Aurten, irizpide hauek berriz aztertu eta aldaketak egin dira: sarrera nagusien autoritateetako (T1XX) karaktereak bi hizkuntzetan berdinak badira ez dira T9XX etiketetan bikoiztuko; eta bigarren sarrerak (T7XX) etiketa berean bikoiztuko dira, betiere karaktereak berdinak ez badira (ikus 3. eranskina).

Liburutegi Zerbitzuaren ustez, katalogo elebakarrak (ia gehienak gaztelaniaz) euskaraz nahiz gaztelaniaz kontsultatu ahal izateko jarraitutako irtenbidea egokia izan arren, horretarako beharrezkoak diren urratsak etengabe aztertu eta hobetu behar dira arlo tekniko zein informatikoan. Hori dela-eta, azken bi urte hauetan egindako lanak bide horretan zuzendu dira: elebidun bihurtzeko programa informatikoa aztertu eta hobetu, fusionatzeko programa aldatu, autoritateen datu-basea elikatu, kontsultarako interfazea aztertu...

Halaber, katalogo kolektibotik erregistroak xurgatzeko, Z39.50 protokoloaren bidez, zerbitzua eskaintzen zaie interesatuta dauden liburutegiei. Horretarako, aski da Liburutegi Zerbitzuan eskaera egitea. Arlo honetan aipagarria da Alemaniatik, Frankfurteko Goethe Unibertsitatetik, euskal dokumentuak eskuratzeko jaso dugun eskaera.

Bestalde, ELSNko liburutegien katalogoa on line egiteko proiektu berria abian jartzearekin batera, katalogo kolektiboan nahitaez aldaketak egin beharko dira. Kontuan izan behar da, erregistro bibliografikoak katalogatzen diren unetik elebidunak izango direla; eta, beraz, orain arte bezala elebidun bihurtzeko prozesua igarotzea ez dela beharrezkoa izango. Horrez gain, katalogoa on line izango da. Hala ere, ziurrenik denboraldi batean bi katalogoek biziraungo dute.

2002ko udazkenean "Euskadiko katalogo kolektiboa" deiturikoa egiteko lan-talde bat osatu zen EAEko liburutegi esanguratsuenetako arduradunekin: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Sancho el Sabio, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia eta Liburutegi Zerbitzua. Liburutegi horietan katalogoak kudeatzeko programa informatiko (Amicus, Dobis-Libis, Sabini, Absys...) eta MARC formatu desberdinak erabiltzen dira, eta orain arte ondoko urrats hauek eman dira: batetik, katalogoen erregistroak kargatu dira Kultura Sailaren serbidorean; eta, bestetik, duplikatuak detektatzeko programa informatikoa aztertu eta egokitu da. Nahiz eta lortutako emaitzak positiboak izan, arazoak daude, esaterako, erregistroak IBERMARC formatura bihurtzerakoan akatsak agertzen dira etiketetako puntuazioan. Hala ere, arazorik nagusia autoritate eta gai-sarrerei dagokiena da. Kontuan izan behar da erregistro kopuru handiak dituzten katalogoak direla, eta, Kultura Sailaren autoritate elebidunen datu-basean horietako asko sartuta ez daudela. Ondorioz, katalogoak euskaraz ezin dira kontsultatu datu-base horretan sartu arte.

Kultura Sailaren xedea bi katalogoak, hots, ELSNko on line katalogoa eta Euskadiko Katalogoa interneten kontsultagai jartzea litzateke.

5. Ondorioak

Gure ustez, euskararen presentzia liburutegietan bermatzeko, baina batez ere katalogoetan, egun abian dauden lan ildo eta proiektuak egoki bideratuta eta zehaztuta egon arren; etengabe aztertu, hobetu eta bultzatu behar dira, bai arlo teknikoan zein informatikoan.

Halaber, proiektu horiek gauzatzeko ezinbestekoa da erakunde eta liburutegien arteko elkarlana, plangintza, koordinazioa eta borondate politikoa.

Baita ere, hau guztiau aurrera eramateko beharrezko diren giza--baliabideak, ekonomikoak, teknikoak eta informatikoak.

Bibliografia:

ESTRADE, Eduardo. "Eusko Jaurlaritzaren liburutegi politika". In: Jakin, Donostia: 2000, 118. zenbakia.

GARTZIA, Pruden; LUZURIAGA, Gerardo. "Elebitasunaren auzia: biblioteketako katalogoak". In: Jakin, Donostia: 2000, 118. zenbakia.

LOPETEGI, Maite. "Euskal Autonomia Erkidegoko biblioteka publikoen egoera". In: Jakin, Donostia: 2000, 118. zenbakia.

JUANENA, Agurtzane. "El euskera en la catalogación de nuestro patrimonio bibliográfico". In: ALDEE, Bilbao: 1996, 4. zenbakia.

JUANENA, Agurtzane. "Euskarak bere agentzia bibliografikoa behar du". In: ALDEE, Bilbao: 1998, 7. zenbakia.

JUANENA, Agurtzane. "Euskal liburutegi nazionalaz". In: Jakin, Donostia: 1998, 105. zenbakia.

Katalogatzeko oinarrizko terminologia. Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia, Oñati: HAEE-IVAP, 2001.

ERKIAGA, Nere ...[eta beste]. "Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren web gunearen azterketa". 2001

<http://www.eibar.org/joana-albret>

1. eranskina (lege-gordailuko adibidea)

```
..T008:991215 b aiznnaaan          n bnc      d
..FEIN:19991215
  FEPU:b ai
  PAIS:
  aan
  LENG:
..T040:«a»SNBE«b». spa-baq
..T150:« 0»«a»Amas de casa
..T450:« 0»«a»Mujeres en casa
..T450:« 0»«a»Mujeres en el hogar
..T550:« 0»«a»Economía doméstica
..T550:« 0»«a»Mujeres«x»-Trabajo
..T670:«  »«a»TM ; ivap
..T750:« 0»«a»Etxekoandreak
..T850:« 0»«a»Emakumeak eta etxea
..T950:« 0»«a»Etxeko ekonomia
..T950:« 0»«a»Emakumeak«x»-Lana
..CLAS:150 a
```

2. eranskina (katalogo kolektiboko autoritateen katalogoa)

Euskaraz

6926
008 991215 b aiznnaaan n bnc d
040 \$aSNBE\$b. baq
150 0 \$aEtxekoandreak
450 0 \$aEmakumeak eta etxea
550 0 \$aEtxeko ekonomia
550 0 \$aEmakumeak\$x-Lana
670 \$aTM ; ivap
750 0 \$aAmas de casa \$2 (spa)

Gaztelaniaz

001 6925
008 991215 b aiznnaaan n bnc d
040 \$aSNBE\$b. spa
150 0 \$aAmas de casa
450 0 \$aMujeres en casa
450 0 \$aMujeres en el hogar
550 0 \$aEconomía doméstica
550 0 \$aMujeres\$x-Trabajo
670 \$aTM ; ivap
750 0 \$aEtxekoandreak \$2 (baq)

3. eranskina

Katalogo Kolektiboa - Registro nº 6 de 35

ECC0155903
008 970408s1981 esp 000 0 spa d
020 \$a84-300-5151-1
035 \$a20020004385
040 \$a2002
080 24 \$a81'246.2
100 20 \$aSánchez Carrión, José María
245 13 \$aEl espacio bilingüe\$b : (aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios)\$c / José María Sánchez Carrión "Txepetx"
260 0 \$aBurlada (Navarra)\$b : Eusko Ikaskuntza\$c, D.L. 1991
300 \$a179 p.\$b : il.\$c ; 24 cm
650 4 \$aElebitasuna
650 4 \$aBilingüismo
710 21 \$aEusko Ikaskuntza
910 21 \$aSociedad de Estudios Vascos